

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**209/2019 Foru Agindua, abuztuaren 2koa, proiektu honen interes publikoa adierazten duena: Aiarako udalerriko Añes herriko 6 poligonoko 1717 zenbakiko lurzatian, lurzoru urbanizaezinean, eta Itelazpi SArean jabetzakoa den azpiegitura baten gainean, telefonia mugikorreko deien banagune bat instalatzeko proiektua, Telefónica Móviles España SAK sustatua**

Telefónica Móviles España SAK Aiarako Udalarari aurkeztu dio telefonia mugikorreko deien banagune bat ezartzeko jardueraren aurretiko jakinarazpena. Banagunea Añes herriko 6 poligonaren 1717 lurzatian kokatuko da.

Aiarako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen osagai da 0100508 Añes telefonia mugikorreko deien banagunea (COC 201807001154) ezartzeko proiektu tekniko ikus-onetsia, zeinak deskribatzen baitu jarduera garrantzuko dela dagoeneko bertan dagoen eta Itelazpirena den (Eusko Jaurjaritza) azpiegitura baten gainean. Horretan adierazten da jarduera Estazio Transmisiotzaile/Hartzaileen Estatuko Estaldura Planaren (BTS) barruan dagoela, eta telefono mugikorretara irriti uhinen bidez lotzen dela. Udal arkitektoak egindako txostena ere erantsi da. Txosten horretan adierazten da lurzatia lurzoru urbanizaezinean dagoela, Trantsizioko landa paisaiaren babes zonan, udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera. Araudi horretako 144. artikuluan, baimendutako erabilera gisa jasotzen dira onura publikoko eta gizarte intereseko azpiegiturak eta instalazioak, horietan baldintza jakin batzuk betetzen badira.

2019ko maiatzaren 22an, Aiarako Udalarari errekerimendua bidali zitzaion, bai eta Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren txosten bat ere, zeinean adierazi baitzitzaion interes publikoaren adierazpenaren datuak falta zirela Telefónica Móviles enpresak deien banagunea jarri nahi duen lurzatian lehendik dagoen azpiegiturari buruz (Itelazpiko dorrea), eta 15 eguneko epea eman zitzaion egoki iritzitako agiriak eta alegazioak aurkeztu ahal izateko. Horrekin batera, eten egin zen eskaera ebazteko eta jakinarazteko epea.

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko 2019ko maiatzaren 31ko sarrera data duen idazki baten bidez, Aiarako Udalak aipatutako idazkiaren erantzuna bidali zuen, eta udal arkitektoak maiatzaren 29an egindako txostena erantsi zuen, non errekerimenduan eskatutakoei erantzuten zaien. Hori dela eta, dagokion onura publikoaren edo interes sozialaren adierazpena izapidetzeko eskatzen du, eta ebatzi dadila bai 2010ean Itelazpi SAK ezarritako telefonia ekipamenduarena bai Telefónica Móviles España SAK telefonia mugikorreko deien banagunerako eskatutakoarena, zeina aurretik dagoen azpiegituraren gainean jarriko baita.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta Sail honen egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Ekainaren 11ko 151/2019 Foru Aginduaren bidez, xedatzen da espedienteari hasierako onespena ematea eta hura 20 egunez jendaurrean edukitzeko aldia irekitzea ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hain zuzen ere, espediente hori 2019ko ekainaren 21eko ALHAOn (72. zenbakia) argitaratu zen, eta zen inolako alegaziorik aurkeztu horretarako eman zen epean.

Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorrek 2. artikuluan ezarritakoaren ondorioz datorkio interes publikoa aztertutako kasuari. Artikulu horretan ezartzen denez, "Telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak dira eta lehia askearen araubidean ematen dira". Bestalde, 34.2 artikuluan hau xedatzen da: "komunikazio elektronikorako sare publikoak oinarritzko ekipamenduak dira (...). Haiek jartzea eta hedatzea interes orokorreko obrak dira".

Aiarako udalerriko arau subsidiarioen 145. artikulua ("Eraikuntzako erabilerei eta jardueri esleitutako hirigintza parametroak") honako hau jasotzen du 1.e) apartatuaren ("Landa inguru-nean egin beharreko onura publikoko edo interes sozialeko eraikinak") 3. puntuan: "Telekomunikazioetako antena eta ekipoak edo horien antzekoak edozein lur motatan ezarri ahal izango dira, erabilera publikoaren edo gizarte interesaren deklarazioa eginez gero". 4. apartatuak xedatzen du garatu beharreko jarduerak ezinbestez lotuta egon behar duela aukeratutako lurrekin.

Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan eta kokaleku zehatz horretan, proiektuan jasotakoaren arabera.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Telefónica Móviles España SAK sustatutako proiektuaren interes publikoa adieraztea. Proiektua honetan datza: telefonia mugikorreko deien banagune bat ezartzea Aiarako udalerriko Añes herriko 6 poligonoan, 1717 zenbakiko lurzatian, lurzoru urbanizaezinean, eta Itelazpi SAren jabetzakoa den azpiegitura baten gainean, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Jarduera hori Estazio Transmisiotzaile/Hartzaileen Estatu Estaldura Planaren (BTS) barruan dago.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoaren adierazpenak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsioa.

Gasteiz, 2019ko abuztuaren 2a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**